



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2018-10-10

BILERA ZENBAKIA:53

ORDUA ETA LEKUA: 19:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Javi, Leire, Ruth, Maider, Itziar.

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA.

2. FESTEN BALORAZIOA

3. EGUTEGIA

4. 2019RAKO PLANGINTZA.

5. BESTEAK


1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA.

Azkeneko akta onartu da.

2. FESTEN BALORAZIOA.

Hanburgesa janerako egin beharreko erosketetan zuzenketa batzuk eta ikusitako beharren araberrako aldaketak egin dira. Datorren urterako erreferentzia moduan izatea du helburu listak.

- Hanburgesak:
 - Oilasko haragia: 100
 - Txekor haragia: 120 (Datorren ikasturteari begira txekor hanburgesa gehiago eskatu eta oilaskoarena gutxiago. Jendeak txekor hanburgesa eskatzen zuen eta ez zegoenez oilaskoana hartzen zuen)
 - Begetalak: 30
- Letxuga: 3 kilo
- Tomatea 5 kilo
- Kipula potxatua: 2 pote
- Serbiletak: 300



- Olio: txanbil 1
- Mahonesa eta keptxupa. **Faltan egon zen, keptxupa batez ere.**
- Gazta: 250 lontxa.

Hanburgesa janaren balorazioa:

- Aurrez eginiko lana oso ondo egina egon zen, eta egunean nabaritu zen, ondo antolatua zegoen.
- Jendea gerturatu zen eta gustura geratu zen, dena jan zen.
- Txandara aurrez izena emanda ez zen jendea gerturatu zen eta laguntza hori jaso zen. Ez zen eraginkorra izan, eta, datorren urterako txandak aurrez lotuta izatea ezinbestekoa da. Lantaldea aurrez egituratzea.
- Hanburgesa batzuk ticket gabe saldu ziren.

Gizarte Zerbitzuetatik banatutako tiketak: Eraitza ez da positiboa izan, beste era batera planteatu beharra dago festak denentzat iriskorrak izatea, baina tiketak banatzea ez da konponbidea.

3. EGUTEGIA

Duden argazki posibleen artean aukeraketa bat egingo da. Maider eta Leire arduratuko dira hortaz.

4. 2019.RAKO AURREIKUSPENA

Ongizate lantaldeko hileroko bileretan gai asko izaten da lantzeko eta beste hitzordu bat jarri da datorren 2019rako antolaketa finkatzeko. Bertan lantaldearen biltze egunak konkretatu, duen prestutasuna ikusi eta datorren urtera begirako antolaketaren inguruan hausnartuko da.

Bilera urriaren 16an izango da 18:00etan.

6. BESTEAK

Elikadura osasuntsua: Osoa elikadurak Udalari proposamena egin dio elikadura osasuntsuaren inguruan tailer batzuk antolatzeko. Datorren bileran planteatuko da, ea egoki ikusten den datorren urtera begira aurrekontu zati bat hontara bideratzea. Abendurako kultur arteko sukalde ekintza bat egitea zegoen aurreikusita eta ekintza honegatik alda daiteke.

Janari banaketa: Atean salto sistema jartzeko aurrekontua eskatuko zaio Beleni. Urrian zehar egingo da banaketa.



Guztion herria: Herri diagnostiko bat egingo da eta horretarako pasako den galdetegirako, ongizateari dagozkion galderak prestatu dira. Bilerak diagnostikoaren diseinuaren inguruan hitz egiteko izaten dira maiz, eta, plangintzarako tarte gutxi hartzen dela ikusten da. Ongizate lantaldetik datorren urtean aniztasuna lantzeko ideia ondo ikusi zen, eta, beste eragile batzuekin batera lantaldean lantzen diren hainbat gairi era bateratuan irteera emateko modu egokia dela ikusten da.

Memoria tailerra: Aurten 10 bat boluntario daude memoria tailerra aurrera eramaten, eta, tailerretara gerturatutako herritar kopurua oso baxua izan da. Datorren ikasturtera begira, parte hartzea hain baxua bada tailerrarekin jarraitzeak merezi ote duen planteatu da.

Hezkidetzan eta berdintasunean oinarritutako jostailuen lanketa: Gabonetako kanpainaren aurretik informazio eta kontzientiazio kanpaina bat egitea planteatzen da (Maider eta Ruth). 3 aukera jartzen dira mahai gainean:


1. Familiekin tailer bat egin eta denon artean erabaki zein behar dauden, haurren jostailuek nolako ezaugarriak izatea nahi den.
2. Triptiko bat egin jostailu sexistak identifikatu eta ez sexisten ezaugarriak landuko dituen.
3. Tupertoy. Haur eta gurasoekin joko ezberdinak ikusi, frogatu eta bakoitzaren ezaugarrietan sakontzeko saio bat egin. (Alupe)

Alu ulu antzerkia: Aurrekontua eskatu da eta oinarria 750ekoa da. (BEZa, materiala, etab. gehitu) Maiderrekin kultur taldekoei proposatuko die eta bertan erabaki dezatela egoki ikusten duten egitarauan jartzea.

Aisialdia denontzat: Eskolatik ikusi da, haurren egoerak anitzak direla eta arrazoi ezberdinak medio batzuek ez dutela arratsaldea lagunekin pasatzeko erraztasunik. Kasu honetan zailtasunak dituzten haurrei aisialdirako sarbidea erraztea beharrezkotzat ikusten da. Ludotekan hilean behin edo bitan ekintzak antolatzea ideia ona izan daitekeela ikusten da, aurrez guraso bileran planteatu zen ideia baina ez zen atera. Haurren aisialdiaren gaia ongizate lantaldetik haratago landu beharreko gaia dela ikusten da (guraso elkarte, eskola, etab.) guztion herria eremu egokia izan daiteke. Lehen aipatu den Ludotekako proiektua herrira zabaltzen da honela, jende ezberdinari hilean behin haurrekin ekintza bat antolatzeko aukera zabalduz.

Ipuin kontaketa: Eskolekin hitz egin behar da ea urtea amaitu baino lehen egiten duten saioa.

Aurrekontuak: Orain arte GLL-erako 3.000 euro eman ditu Udalak. 4.000 euro



ematea planteatzen da.

Errefuxiatuak: Maiatzetik hona hilero errefuxiatuekin loturiko zerbait antolatu da:

- Maiatza: Katiluen kanpaina martxan jarri.
- Ekaina: Katiluak banatu. Errefuxiatu eguna.
- Uztaila: S.M.H.ri txekea banatu.
- Iraila: Aita Marira bisita, Itsasondoko bandera eramatea.
- Urria: Eskolaren bisita Aita Marira.

Eskolako haurren bisita Aita Marira: Ikasleek itsasontzia ikusi zuten. Itsasontziak duen mural batean oinarrituz ipuinak idatzi zituzten binaka, eta bertan utzi zituzten.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Egutegiko argazkiak hautatu	2018-11-07	Maidier, Leire
Berdintasunean oinarritutako jostailuak.	2018-11-07	Maidier, Ruth.
Alu uluak. Kulturakoekin hitz egin	2018-11-07	Maidier
Salto Sistema. Aurrekontua	2018-11-07	Gizarte Langilea
Eskolarekin hitz egin. Ipuin kontaketa	2018-11-07	Gizarte Langilea
HURRENGO BILERA		

2018ko urriaren 10ean egingo da 19:00etan Udaletxean:

Jorratuko diren gaiak:

- Aurreko aktaren onarpena.
- Etxeko lanak.
- 2019ko antolakuntza.
- Elikadura osasuntsua.
- Azaroak 25.
- Besteak.